

## MUNDU GARAIKIDEAREN HISTORIA

Irakaslea	Ander Genua Parra Andoni Otamendi Pazos Txomin Fernández Brieba	Maila	1. Batxilergoa	Ikasturtea	2020-2021
-----------	---	-------	----------------	------------	-----------

### IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

- Gaur egungo munduaren funtsezko ezaugarriak eta arazo nagusiak globalizatu dira, ondorioz giza taldeen bizitza baldintzatzen duten fenomeno globalak ezagutzea ezinbesteko baldintza da inguruko errealitatean modu kontzientean kokatzeko, azaltzen diren arazoak ulertzeko eta horien aurrean zentzuzko erabaki pertsonalak hartzeko, bai eta etorkizuna eraikitzen modu aktibo eta arduratsuan lagunduko duten konpromisoak ere.
- Egoera horretan, Mundu Garaikidearen Historiak zeregin garrantzitsua betetzen du: orainaldia, prozesu bukatugabe baten faseetako bat dela ulertarazten du, iraganeko elementuen gainean erabakia dagoela, eta posible dela oraingo konpromisoen bidez etorkizuna moldatzea. Jakintza historikoak, bestalde, oraingo errealitatea atzeman nahi du berezko dituen mekanismoak erabiliz: gertaeren jatorriaren eta bilakaeraren ikerketa eta haien arteko loturen analisia. Astero 4 eskolaldi dugu .

### OINARRIZKO GAITASUNAK

### UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak.			3		5			8	9	10
3) Gaitasun digitala.					5	6	7	8	9	10
4) Ikasten ikastea.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
6) Ekimena eta ekintzailtza.			3					8	9	10
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

### ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

### EDUKIAK

#### IKASGAIKO EDUKIAK

1. ANTZINAKO ERREGIMENA
2. ANTZINAKO ERREGIMENAREN KRISIA
3. INDUSTRIA IRAULTZA ETA GIZARTEAN EKARRI ZITUEN ONDORIOAK
4. EUROPAKO NAGUSITASUNA MUNDUAN ETA, LEHEN MUNDU GERRA
5. GERRARTEKO GARAIA, II MUNDU GERRA ETA BERE ONDORIOAK
6. BI MUNDU DESBERDINEN BILAKAERA ETA HAREN LISKARRAK
7. DESKOLONIZAZIOA ETA HIRUGARREN MUNDUA
8. BLOKE KOMUNISTAREN KRISIA
9. MUNDU KAPITALISTA XX. MENDEAREN BIGARREN ERDIALDEAN
10. GAUR EGUNGO MUNDUA IKUSPEGI HISTORIKOTIK BEGIRATUA

SKOLAE

Nafarroako Hezkuntza Departamentuko **Skolae Berdin Bidean** programan integratutako ikastetxea izanik, programa honen jarduerak eskola programazioetan eta edukietan txertatuta daude.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

### Batxilergoko kurrikuluma

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
10	1. BLOKEA	20	4. BLOKEA	5	6. BLOKEA
10	2. BLOKEA	20	5. BLOKEA	5	7. BLOKEA
10	3. BLOKEA			5	8. BLOKEA
				5	9. BLOKEA
				5	10. BLOKEA
2 AZTERKETAK		2 AZTERKETAK		2 AZTERKETAK	
BERRESKURAPENA		BERRESKURAPENA		BERRESKURAPENA	

### METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK

Gai edo prozesu baten aurkezpena eta sarrera irakasleak azalduko ditu, baliabide ezberdinez lagundua; batzuetan ikasleak ikerketak eta sintesiak egingo ditu informazio iturri ezberdinak erabiliz, eta ahozko azalpenak emango ditu. Irakasgaia ikasteko orientabideak:

- Liburuan dagoen informazioa erabili baina ez buruz ikasteko, gaiak antolatzeke eta garatzeko baizik.
- Eginen diren ariketa praktikoak –mapen, grafikoen, estatistiken, dokumentu idatzien, irudien... komentarioak- modu txukun eta antolatua aurkeztu behar dira.
- Historia Garaikidea denez, gaurko errealitatea ezagutu eta ulertzea dugu helburua. Beraz, gure metodologian komunikabideen erabilerak garrantzia izango du: eguneroko berriak komentatu eta munduko gertaera edo prozesuren baten ikerketa lana egin.

Testuliburua: Santillana argitaletxeak duen Batxilergoko 1.mailarako Historia. Beste baliabide batzuk: Irakasleak prestatutako materiala, bideoak, egunkariak, aldizkariak, online baliabideak,...

### EBALUAZIOA ETA BERRESKURAPENA

#### KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK edo BALIABIDEAK

- Kalifikazioaren % 90 azterketek osatuko dute.
- Irakasleak horrela erabakitzen badu ikerketa lanak ere proposatuko dira, irakasleak erabakiko du kasu honetan zein pisu izango duen notan. Azterketako %90 horretatik hartuko da.
- Kalifikazioa osatzeko, azterketa eta ikerketa lan (egotekotan) bakoitzean gutxienez 4 atara behar da. (Azterketak, beti ere, landutako kontzeptuei eta prozedurei lotuta prestatuko dira. Azterketa bakoitzean azalduko da atal bakoitzaren balioa).
- Kalifikazioaren % 5 ikasleen produkzioak eta jarrerak osatuko dute, hau da, eguneroko lana, eguneroko ariketak, koadernoak edo/eta taldeko egindako lanak (epe barruan), gelara etortzea, eta besteekiko errespetua errazten dituen jarrera, irakasleak etengabeko beaketaren bidez baloratuko da
- Kalifikazioaren beste %5ak ikasgelan irakaslearekin eta klasekideekin **euskararen erabilerak** osatuko du.
- Ebaluazioa gainditzeko gutxienez, 5 atara behar da.
- Azken nota hiru ebaluaketetan lortutakoaren batez bestekoa izanen da, baldin eta guztietan

5 baino gehiago atera den.

- Sakeleko telefonoak debekatuta daudenez, irakasleak jaso behar izanez gero puntu bat kenduko zaio ikasleari ebaluazioan

## ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

- Gutxieneko emaitza 5 izango da kasu guztietan.
- Azterketak 10-eko balioaren gainean zuzenduko dira.
- Hamarrenak ere erabiliko dira kalifikazioetarako.
- **Borobiltzea:**  
**Ebaluazioko** nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:
  - Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
  - Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5-5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.
- **Ikasturte bukaerako** nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

## ERREKUPERAZIO SISTEMA

### BERRESKURAPENAK

- Ebaluaketa gainditzen ez dutenentzat berreskurapen azterketa izango da. Honen nota gehienez 5 izango da.

### EKAINEKO BERRESKURAPENA

- Ebaluazioen bat gainditu gabe duten ikasle guztiek Nahikotasun azterketa egin beharko dute. Honen nota gehienez 5 izanen da.

### EZ-OHIKO BERRESKURAPENA

- Ikasgaia gainditzeko, azterketa bat egingo da irakasleak emandako jarraibide edo plangintzaren arabera. Gehienezko nota 5 izango da. Horren balioa %100 da

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.